

AFOMEF POCTEFA-proiektuen laguntzailea

Lanpostuaren eginkizun nagusiak:

- Zerbitsuen Zuzendaritza Nagusiaren eta proiektu-buruzagitzen koordinazioaren pean, AFOMEF PONCTEFA mugaz gaindiko eskualde arteko lankidetza-proiektuen kudeaketan laguntzea, jardura-eremu guztietan.

AFOMEF POCTEFA proiektuen deialdiaren barruan, Euroeskualdeak hiru ekimenetan parte hartzen du, eta horietako bi zuzentzen ditu taldeburu gisa. Proiektu horien helburua da herritarren bizitza hobetzea funtsezko gaien inguruan: enplegu, hizkuntza aniztasuna eta garraioa.

AFOMEF proiektu-laguntzailearen eginkizun nagusia proiektu horien garapena, eta jarraipena laguntzea izango da, bereziki Euroeskualdeak kudeatzen dituenak, bazkide nagusi gisa: **LANEAN** eta **HEZHI**.

Hemen aurkituko dituzu proiektuaren deskribapen zehatzak: [Afomef-proiektuen-deialdia-euroeskualdeak-koordinatutako-hiru-ekimenak-hautatu-dituzte/ Euroeskualdea Akitania Berria, Euskadi eta Navarra](#)

Lanpostuaren jarduerak eta eginkizunak (Euroeskualdeko hiru lan-hizkuntzetan garatu behar da: euskeraz, gaztelaniaz eta frantsesez)

Administratiboak :

- Euroeskualdeko jarduerarekin lotutako eginkizun administratibo arruntak burutzea (biltzarren aktak idaztea, akordioak eta dokumentu administratiboak prestatzea, korrespondentzia eta gonbidapenak kudeatzea eta haien jarraipena egitea, emailak bidaltzea, etab).

Teknikoak :

- Euroeskualdeko taldeari laguntza ematea proiektuaren diseinuan, abian jartzen, kudeaketan, komunikazioan eta jarraipen teknikoan, administratibo eta finantzarioan.
- Euroeskualdeko taldeari laguntza administratibo eta antolakuntza eman, haien eginkizunetan zehar.
- Ebaluazio, jarraipen eta kudeaketa-tresnak eraikitzen eta eguneratzen laguntzea: datu-taula, biltegiak, aginte-panelak, inkestak, etab.
- Informazioaren eta datuen (bai kuantitatiboak bai kualitatiboak) sarreran, bilkuran, analisisian, formateatzean eta aurkezpenean parte hartzea.



Hierarkia-postua :

Lehendakaritza

Zerbitzu-zuzendaritza nagusia

Lurralde-lankidetzako proiektuaren
kudeatzaileak

AFOMEF PONCTEFA proiektuen
laguntzailea Lanpostuaren

Funtzio-harremanak:

• **Euroeskualdere barruan:**

- ZZN-arekin (Eguneroko harremana Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiarekin. Zuzendaritza nagusiak jarraibideak ematen ditu eta dokumentu administratibo eta teknikoak sinatzen ditu).
- Eragileekin (*proiektu-kudeatzaile guztiekin eta administrazio eta finantza departamentuarekin harreman transbertsalak*).
- Aukeratutako ordezkariarekin (*Batzar Nagusiako eta Batzar Exekutiboko kideak*).

• **Euroeskuakdetik kampa**

- Euroeskualdearekin harremana duten tokiko erakundeekin (Akitania Berriko Eskualdeko Kontseilua, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, etab.).
- AFOMEF proiektuetako bazkideekin.
- AFOMEF proiektuen kudeaketan inplikaturako edozein pertsonarekin.

Eskakizunak:

• **Gaitasun teknikoak:**

- Zientzia Politikoetan, Zuzenbidean (publikoan eta europarrean) edo Ekonomian hasierako prestakuntza izatea.
- Ingurune instituzionalaren eta tokiko agintarien erabaki-prozesuen ezagutza.
- Administrazioen eta bazkide publikoen funtzioak eta eskumenak ezagutzea, bai Frantzian, bai Euskadin eta Nafarroan.
- Idazketa administratiboa menderatzea.
- Aplikazio informatiko profesionalak eta ofimatika menderatzea.

• **Pertsonen arteko trebetasunak:**

- Komunikazio, negoziazio eta bitartekotza-teknikak menperatzea.
- Sare profesional bat garatu eta mantentzea.
- Taldean lan egiten eta bilerak lideratzeko gaitasuna izatea.
- Hizkuntza-eskaerak: frantsesa eta gaztelania (B2 maila beharrezkoa da).



- Euskara menderatzea bereziki baloratuko da
- Ingelesaren jakitea baloratuko da
- Pertsona antolatua, zorrotza eta metodikoa izatea
- Eraginkorra eta erreaktiboa izatea
- Analisi-eta sintesi- gaitasuna izatea
- Gaztakak arbitratzeko eta konpontzeko gaitasuna

Estaturuaren esparrua:

Maila: C

Eremua: Administratiboa

Lan esparrua: Lurralde Administrazio laguntzailea

Jarritako baliabideak:

Ofimatika duen ordenagailu bat

Hainbat software

Imprimagailua, fotokopiagailua eta telefonoa

Praktikaren baldintzak eta mugak:

- Lanaldi osoko kontratua
- Ordutegi erregularra, zabalatasun aldakorarekin, funtzioarekin loturako betebeharren eta jardura-puntuen arabera (proiektu komunitarioa)
- Zorroztasun profesionala, sekretu profesionala eta konfidentzialitatea-betebarra
- Zerbitzu publikoaren zentzua
- Erabilgarritasun handia
- Hainbat espediente aldi berean kudeatzea

2025eko apirilaren 14an idatzia